

2017KO IRAILEKO EFEMERIDEAK

(Ordu guztiak denbora unibertsalean eman dira, gehitu 2 ordu ofiziala kalkulatzeko)

Poloetan kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 0 Km/h

Ekuadorean kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.668 Km/h

Donostian kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.220 Km/h

BEHAKETA PROPOSAMENAK

-Begi hutsez:

- Hilaren 3an, 03:00an, Perseoko Algol izar aldakorraren distira minimoa. Magnitudea 3,3tik gertu. Hilaren 6an, 8an, 11an, 14an, 17an, 20an, 23an, 26an eta 28an izango dira.

-Hilaren 5ean, 11:00etan, Delta Cephei izar aldakorraren distira maximoa. Magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,366 egunean behin. Hilaren 10ean, 16ean, 21ean eta 26an izango dira beste maximoak.

-Hilaren 5an, 14:00etan, Eta Aquilae izar zeifeidarraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 7,177 egunean behin. Hilaren 12an, 19an eta 27an izango dira beste maximoak.

-Hilaren 19tik aurrera, hamabost egunen zehar, Zodiakoaren argia ikusi ahal izango dugu ekialde ipar-ekialdeko zeruertz gainean, egunsentia etorri baino lehen. Planeta desberdinen artean orbitatzen ari diren hauts izpi mikroskopioetan argiaren islatzeak sortuta. Leo, Cancer eta Geminis konstelazioak gurutzatuko ditu.

-Hileko bigarren eta hirugarren asteen zehar, ekialdeko zeruertz gainean, Artizarra, Merkurio eta Marteren arteko gerturatze bat ikusi ahal izango dugu, Leoko Regulo izarraren inguruan.

- Prismatico edo Teleskopioarekin:

-Hilaren 11an, ilargia librazio maximoan aurkitzen denez latitudean, Peary kraterra ikusi ahal izango da, Ilargiko Ipar poloan aurkitzen dena.

-Hilaren 16an, egunsentia etorri baino lehenxeago, Marte aurkitu ahal izango dugu Merkurioaren ondoan ekialde ipar-ekialdeko zeruertz gainean, eta Artizarren ondoan hilaren 30an.

ILARGIA IRAILEAN

08 18:40tan, beheranzko nodotik pasatuko da.

06 librazio minimoa longitudean ($l = -4,9^\circ$).

06 07:03tan, llibetea.

11 librazio maximoa latitudean ($b = 6,7^\circ$).

11 19:43tan, konjuntzio geozentrikoan Pleyadeekin, $9,3^\circ$ ra.

12 12:28tan, konjuntzio geozentrikoan Tauroko Aldebaran izarrarekin, $0,4^\circ$ ra.

13 06:25tan, llibehera.

13 16:06tan, Perigeotik pasatuko da, Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena 369.860 Km (aurreko apogeoan baino 34.448 km gutxiago).

17 18:28tan, Goranzko nodotik pasatuko da.

18 00:34tan, konjuntzio geozentrikoan Artizarrekin, $0,5^\circ$ ra.

18 04:59tan, konjuntzio geozentrikoan Leoko Regulo izarrarekin, $0,1^\circ$ ra.

18 19:48tan, konjuntzio geozentrikoan Marterekin, $0,1^\circ$ ra.

18 23:20tan, konjuntzio geozentrikoan Merkurioarekin, 0° ra.

20 05:30tan, lliberria.

22 06:29tan, konjuntzio geozentrikoan Virgoko Spica izarrarekin, $6,6^\circ$ ra.

22 10:27tan, konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin, $3,5^\circ$ ra.

26 00:01tan, konjuntzio geozentrikoan Escorpioko Antares izarrarekin, $9,5^\circ$ ra.

27 00:15tan, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, $3,5^\circ$ ra.

27 06:50tan, Apogeutik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 404.348 Km.

(aurreko perigeoan baino 34.488 km gehiago).

28 02:54tan, lligora.

PLANETAK IRAILEAN (LURRAREN ORBITA-ABIADURA: 107.280 km/h)

Merkurio (Hilaren 7tik Aurrera ikusi daiteke gauaren amaieran) orbita-abiadura 172.440 Km/h

Goizean behatzeko denboraldi egokian aurkitzen da. Eguzkiarekiko elongazioaren maximoa hilaren 12an izango da (18°). Ekialde ipar-ekialdeko zeruertz gainean aurki dezakegu eguzkia atera baino ordu bat lehenago, begi hutsez ikusi daiteke hilaren 25 arte. Igoera zuzena 10h eta 12h artean, deklinazioa 9° , 11° eta 1° bitarte. Hilabetea Leon hasiko du eta amaialdera Virgora pasako da. Magnitudea 3,2, 1tik -1,4ra igoko da.

Artizarra (Gauaren amaieran ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 126.000 Km/h

Ekialde ipar-ekialdeko zeruertz gainetik azalduko da eguzkia atera baino lehenago. Hilaren 1an 10^ora jasoko da, eta 5^ora besterik ez 30an. Gorunzko fase konkordunean aurkitzen da. %83ra. Igoera zuzena 9h eta 11h artean, deklinazioa 18^o eta 8^o bitarte. Hilabetea Cancerren hasi eta Leora pasako da. Magnitudea -4,0an mantenduko da.

Marte (Hilaren 10tik Aurrera ikusi ahal izango dugu gauaren amaieran) orbita-abiadura 86.760 Km/h

Hilaren 16an eguzkia atera baino ordu t'erdira azalduko da, ekialde ipar-ekialdeko zeruertzetik. Merkuriorekiko gertutazunak, disdira haundiagokoa, Marte aurkitzeko lana erraztuko du. Hilaren 30an, eguzkia baino bi ordu lehenago azalduko da, Artizarretik gertu. Igoera zuzena 10h eta 11h artean, deklinazioa 13^o eta 7^o bitarte. Hilabete guztia Leon emango du. Magnitudea 2,0 eta 2,1 artean mantenduko da.

Jupiter (gauaren hasieran bakarrik ikusi ahal izango dugu) orbita-abiadura 47.160 Km/h

Eguzkia sartu eta ordu t'erdira ezkutatu da hilaren 1an, eta ordu erdira besterik ez 30an. Behaketa zaila izango da. Igoera zuzena 13h, deklinazioa -8^o eta -9^o artean. Hilabete guztia Virgon emango du. Magnitudea -1,7an mantenduko da.

Saturno (gau hasieran ikusi ahal izango dugu) orbita-abiadura 34.560 Km/h

Hego-ekialdeko zeruertzetik 20^ora aurki dezakegu gauaren hasieran, eguzkia sartu eta lau ordu t'erdira ezkutatu da hilaren 1an, eta hiru ordu t'erdia beranduago 30an. Saturno lurretik urrunduz doa, eta honek disdiran ere beherapena Dakar. Igoera zuzena 17h, deklinazioa -22^o. Hilabetea Ofiucon emango du. Magnitudea 0,5an mantenduko da..

Hilaren 07an 23:19etan, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Hilaren 15an 22:34etan, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Hilaren 23an 22:44tan, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Urano (Gauaren amaieran ikusi ahal izango dugu) orbita-abiadura 24.480 Km/h

Arratsalde amaieran atera eta gure meridianotik 57^ora pasako da gauaren bigarren erdialdean. Atmosfera egoera aiposean begi hutsez ikusi dezakegu. Baina ez Omicron izarrarekin nahastu, Piscis konstelazioko 4,3 magnitudeko izarra 1^o beherago aurkituko da. Igoera zuzena 1h eta 44m, deklinazioa +10^o. Hilabete guztia Piscisen emango du. Magnitudea 5,7an mantenduko da.

Neptuno (gau osoan ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 19.440 Km/h

Oposizioan aurkituko da hilaren 5an. Eguzkia sartu ondoren aterako da, eta gauaren erdialderako, hegoalde 39^ora aurkituko dugu. Igoera zuzena 23h, deklinazioa -8^o. Hilabete guztia Acuarion emango du. Magnitudea 7,8an mantenduko da.

IRAILEKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

- Hilaren 1ean, ostirala, eguerdian, 2.457.998. egun juliotarra hasiko da.
- Egunak 13 ordu eta 11 minutuko iraupena du hilaren 1ean, eta 11 ordu eta 47 minutukoa hilaren 30an.
- Hilaren 1an, lurak 2000 urte periodoko "C/1911 N1 Kiess" kometak utzitako ahuts lorratza zeharkatzen du, ondorioz Alfa Aurigidas izeneko izar iheskorren maximoa sortuaz.
- Hilaren 1an 12:00tan, Denboraren ekuazioa nulua da. Denboraren ekuazioa eguzkiaren benetazko denbora (Eguzkiak meridianoa pasatzen duenean) eta eguzkiren batez besteko denbora (Eguzkiak meridianoa gurutzatuko lukeen ordu abiadura konstante izango balitz) artean dagoen diferentzia da. Urtean zehar aldatuz doa, luraren traslazio abiaduraren aldaketan arabera orbitaren zehar, eta bere errotazio ardatzaren zehar arabera.
- Hilaren 16an, 18:53tan, eguzkia itxuraz Virgo konstelazioan sartuko da (174,09^o).
- Hilaren 20an, eguzkia jarri ondoren, 5.778. urtea hasiko da judutar egutegian. Lehen urtearen lehen eguna, munduaren sormenaren eguna judutar erlijioaren arabera. Hau da, K. a. 3760. Urtearen urriak 6.
- Hilaren 21an, eguzkia jarri ondoren, 1439. Urtea hasiko da Hegira deritzan egutegi musulmadarrean. 622. Urteko uztailaren 16tik kontutan izanda, Mahoma Meca-tik Medina-ra abiatu zenean.
- Hilaren 22an, 226. urteko lehen mashats-biltze hasiera izango litzateke errepublikar egutegian, 1793. Urteko urriak 24an eratu zena. Eta Gregoriano egutegiagatik aldatuta zen 1809. Urteko urtarrilaren 1an.
- Hilaren 22an 20:02an, eguzkia iparretik hegoaldera pasakoa da ekliptika eta zerutar ekuadorea bidegurutzatzen direnean. Iraileko ekinokzioa da. Udazkenaren hasiera ipar hemisferioan.
- Hilaren 22an, astrologiaren arabera, eguzkia Libra konstelazioan sartuko da (180^o). Zodiakoaren zeruko mugek eta izen bera daramaten zodiakoko konstelazioak ez dira berdinak.